

Mendi taldearen egutegia



Behi eruak  
eurak ala geu



<b>MONTURAK BONARDI</b>	<b>4.150</b>	<small>(14.940) PTA.</small>
<small>MONTURAK + KRISTALAK*</small>	<b>60 URTETIK AURRERA</b>	
	<b>8.900</b>	<small>(53.496) PTA. -TIK AURRERA</small>
<small>MONTURAK + KRISTALAK*</small>	<b>G. TABACCHI</b>	
	<b>13.900</b>	<small>(83.546) PTA. -TIK AURRERA</small>
<small>LENTE* MULTIFOKALAK</small>	<b>19.500</b>	<small>(117.206) PTA. -TIK AURRERA</small>

**Multieskaintzak aurki itzazu!**




**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA EIBAR**

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

Bidebarrieta, 2  
Tel. 943200522

EIBAR

Eskaintza honek 01/02/28 arteko balios du. \*Lente zurimendoko eskaintza = 4 ESF. e 2 CIL.



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**

**GOL**

**GOL, S.A. Industriak**  
Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 Soraluze

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

# *Pil* Bazkide zozketa



Hilero hilero *Pil Pilean*en bazkide egin diran danen artian, zozketa bat egingo dogu.

Musika CD bat eta *Pil* kamiseta bat izango dira zozketa gai.

Hil hontan, ñaco  
Goñi eta Malcom  
Scarparen disko  
berrixa

## Kolaborazioa



### "Inteligentzia", eskola eta afektibitatea

**J**adanik, lehenengo hiruhilabetea igaro da eta dagoeneko bigarrenean gaude; Gabonak tartean izan ditugula, ohi den bezala, "eskolako kontuak" eskatzen dizkiegu gure seme-alabei. Eta egiten diren iruzkinak betikoak: nire alabak dena gainditu du, oso inteligentea da; nire semeak ez du gainditu ikasten ez duelako, eta horrelakoak. Baina, benetan arduratu behar gaitu gure seme-alabak "inteligenteak diren ala ez?", zer da "inteligente" izatea?, zer esango genuke esango baligute "inteligentzia" mota asko daudela?; argi dago bakoitza berezkoak dituen trebetasun batzuekin jaiotzen dela, baina inoiz planteatu al dugu "inteligentzia" deitzen diogunari trebetasun batzuen garapena besterik ez dela izan daitekeela?. Planteatu al dugu benetan gure seme-alabei eskatzen dieguna, funtsean, guretzat nahi dugun zerbait dela, hau da, galdetzen diogu geure buruari gure seme-alabek zer nahi duten benetan?, ez al ditugu beraiengan gure desirak proiektatzen?

Gaia konplexua da, baina zer azalpen emango genieke gure seme-alaben hezkuntza afektibitatean eta ulermenean oinarritu behar dela esaten dutenei eta ez eskakizunean?; jarrera "inteligentea" izango litzateke hemen aipaturikoa? "Inteligentzia afektiboaren" garapena, agian, eskolan eskatzen den mailari aurre egiteko gutxiegi da, baina zer pasatzen da eskola ez den gauza batetaz hitzegiten dugunean?; kasu honetan zer da "inteligentziaz" jokatzea?. Halako gauzen inguruan hitzegiterakoan "formula magikorik" ez dagoenez, bakoitzak atera ditzala bere ondorioak!!!



KRABELIN HEZKUNTZESKOLA

**Iñaki Alberdi**  
15.382.404

## Editoriala

**U**rte berrixari begira, beste gauza askon artian aldizkarixan eraberritze sakon bat bultzatu nahi dogu. Ez edukin edo forma aldetik bakarrik, teknologia berrixen erabilera be, punta puntako aldizkarixa eskeintzeko herrixari. Erosi dittugun Machintos ordenadore eta kamara digital berrixarekin, iraultza bat gertatu da aldizkarixan eta irakurliok be laster igarriko dozue. Zeinek daki zer irakurri ahal izango dogun hemendik 11 hilabetetara orrialde honetan bertan... Gure nahixetako bat, epe motzian, gure orrialdietan kolorien bizitxasuna sartzeko aukera ekonomikua be izatia da. Hori bai, gauza guzti honek, oin arte moduan, zela ez, herrittar eta instituziñuen laguntzan bittartez egin biharko dira.

Beste kontu bati helduta, agur bero bat bidali nahi diogu horrenbeste urtetan Soraluzera etorri eta orain gaixo dagoen Bitoriano Gandiaga fraileari, bizkor bizkor oneratzea opa diogu.

Amaitzeko esan, hilabete honetan egin daben hotzak eta etengabe telebisiño eta komunikabidietan entzuteng ari garan behi eruen gaitzak ez doskula bertan behera laga eraingo Pil Pileanek urtero antolatzen daben sagardotegirako irteeria, sagardo goxua eran eta txuleta edarra jatera. Aurten Martxuan izango da, ipiniko zaituegu jakinan gainian eta badakizue gainera **Pil Pileaneko** bazkidiok beherapena izango dozuela!

**Telegrapak:** Hilabeteetan zehar aldizkarixan erdi erdixan sartuta juaten ziran propaganda orrialdeei agur esan diegu. **STOP.** Poztekoa eta eskertzekoa da probintzia mailako egunkari jakin batean faltan botatzen genuen Soraluzeko kartaren ardura pertsona batek fundamentuz hartu duela jakitea, dena dela, gure eginbeharra da elebitasuna bultzatzeko eskatzea. **STOP.** Oso ondo dago obrak iraun artean behinbehineko aparkalekuak jartzea, baina askotan gertatzen dena zera da, kotxearen bila joateko egin beharreko bidea luzeagoa dela joan beharreko tokirakoa baino, industrialdeko bukaerako aparkalekuak kasu...**STOP.** Hala ere, zerbait nahi duenari beste zerbait kostatzen zaio, eta behintzat herria eraberritzen ari da! **STOP.** Hasi poligonora joaten entrenatzera laister Korrika pasako da eta Soraluzetik. **STOP.** Ezoziko bidean, kalearen izena dukan plaka berria faltan botatzen dute. **STOP.** Formalak izan eta hurrengo alerarte!



31.  
alea

#### Argitaratzailea:

**Pil Pilean Kultura Elkarte**

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

#### Lan taldea:

Amaia Agirre, Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Izaskun Gartzia, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Gorka Prieto, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno

**Posta elektronikoa:** [Pilpilean@euskalnet.net](mailto:Pilpilean@euskalnet.net) **Publizitatea:** Elene Alberdi eta Gurutze Ariznabarreta ( 943751304 tel. ) **Banaketa:** Pil Pilean **Tirada:** 1.850 ale **Inprimategia:** Gertu Koop. **Lege-gordailua:** SS-537-2.000 **C.I.F.-a:** G20696563 **Azala:** Aitor Madrid **Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.**



Aldizkari honek

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Soraluzeko Udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko



**Oharra:** Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna **27. Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze**. Laburtu behar izan ezkero, **Pil-Pileanek** horretarako eskubidea izango du.  
Animatu eta bidali gutunak!!!!

## Oharra

**Bazkide izateko izena emon badoskuzu eta urteko kuota ordaintzea ahaztu bajatzu, behekaldian dittuzun bi kontu korronteatariko batian sartu zeinke dirua. Eskerrik asko.**



### Egin zaittez bazkide, gure hizkuntzak bihar zaittu

Elkarteko bazkide egittia urte osoan, 3.000 pezeta, eta 18 urte baino gutxiago badituzu edo jubilatua bazara 1.500 pezeta besterik ez. Agiri hau bete eta Pil Pileanek udaletxepian daukan buzoian bota.

Ondorengo kontu korronteetatiko baten sartu zeinke dirua:

Euskadiko kutxa 3035 0004 9 0 0040015550

Kuxan 2101 0062 13 0123185746

#### PIL PILEAN KULTURA ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT:

Izen deiturak: ..... Jaiotze data: .....

Helbidea: ..... Herria: .....

Herrialdea: .....

Telefono zenb.: ..... Helbide elektronikoa: .....

**Bejondeizula euskalzale, eskerrikasko zure laguntzarengatik !**

**ARRANO-TABERNA**  
**SORALUZE**



*MARTXA eta BORROKA*



**HNOS. BENITO**  
**ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**Mendizabal**

**Okindegia**

Kalebarren,10


Telefonoa 943 75 20 91

Baltegieta, 6

Telefonoa 943 75 13 99

SORALUZE

**Bolia** taberna



Etxaburueta  
kalian

**Soraluze**

Telefonoa:  
943 74 11 04



# Zer iruditzen jatzu behi eruen arazua?



**Aratz del Barrio**  
18 urte  
Ikaslia

Nik ez daukat honen bildurrik, fiatzen naiz haragixarekin, publizidade larregi emoten dotsela uste dot, egunen baten hemen badagola esaten badoste orduan hasiko nahiz arduratzen.



**Koxme Kortabarría**  
41 urte  
Langilia

Nik behixa jaten jarraitzen dot, hemen ez dagola holakorik pentsatzen dot eta hemen holakonbat egongo balitz dudia eukiko neuke jan ala ez, baina honegaittik bape okelarik jan bare egon bihar badogu ia zer egin bihar dogun.



**Milagros Egiguren**  
62 urte  
Etxeko andria

Nik uste dot hemen ez dagola holako arazorik, orduan ez daukat bildurrik, betiko moduan jaten jarraitzen dot.



**Arrate Elizburu**  
32 urte  
Umezaina

Nik ez daukat honen bildurrik, hemen ez dalako holako kasurik entzun.



**Jon Errazu**  
18 urte  
Filosofia ikaslia

Nik betiko moduan jarraitzen dot jaten, pentsatzen dot ez dagola inolako arazorik eta. Hemen emongo balitz holako bat, ez dakit ze egingo neuken, gauza abstraktua da eta.



**Karle Egiguren**  
22 urte  
Ikaslia

Nik behixa jaten jarraitzen dot baina gutxixau, hemen kason bat emongo balitz, igual behixa jatiari lagako notxake.

Izaskun Gartzia eta Ugaitz Catalan

Deittu **943 75 13 04** telefonora zure kexa edo xalua emoteko



**Lakuesta Optika**  
**Beherapenak!!!**  
**Otsaila eta martxoa**  
**%50** Beherapenak  
 Markadun montura  
 eta eguzkitako betaurrekoetan

**Santa Anan gare !!!**  
 Ikusmen arazozen frogak  
 eta argibideak  
 Argazkiak errebelatzen ditugu  
 Santa Ana, 22 C- behea  
 20590 Soraluze  
 Tfnoa 943 75 30 59





ZER BERRI

## Laburrean

### "Itxaropena"

igogailua jubilatuen elkarterako

Orain dela egun batzuk, Udaletxean jubilatuen elkartera igotzeko igogailu bat jartzearen aldeko proposamena onartu zuten. Proposamen hau PSE-EEeko Soledad del Bosquek egin zuen, bere iritziz, Etxaburueta kaleko aldeak pertsona nagusientzat berebiziko arriskua daukate eta.

### Errege Magoak

herrian



Urtarrilaren 5ean, azken urte hauetan ohitura den moduan, "Kabalgata" izan genuen herrian Errege Magoen etorrera ospatzeko. Lehendabizi, Zaharren Egoitzan izan ziren, bertako edadetuei opariak ematen. Gero Txurrukenera jeitsi eta "Kabalgatari" ekin zioten. Ondoren, zazpi terdiak aldera, Erregeak Eliz Atarira joan ziren haurren gutunak jasotzera, haurren elizako korua lagun zutela. Aurtengoa IX. "Kabalgata" izan da, eta aurrekoak bezala, hau ere "Beti Prest" taldeak antolatu du, arrakasta haundiz.

### Nerea Isasti

El Diario Vasco-ko prentsa-korrespontsal berria

Nino Arruabarrenak utzitako lekua Nerea Isastik hartu du. Duela ia hilabete hasi zen El Diario Vasco-n agertzen den Soraluzeko karta idazten. Esan beharra dago, herriari buruzko informazio eta gertakarien inguruan jakinaren gainean jartzeko aukera zabala eskeintzen duela. Animo lankide !

## Kiroldegiko arduradunak kexu dira Udaletxeak ez dituelako konponketa lanen datak bete

Kiroldegia aurrera daramaten ardura-dunek konpoketa lanen datak lau haizetara zabaldu eta gero, ez betetzea leporatzen diote Udaletxe-ari. Beraiek diotenez, alkateak 2000ko ekainean eraikina itxi eta lanean hasiko zirela baieztatu zuen irrati batean, baina atzerapenak direla-eta, arazo asko sortzen ari zaizkie, jendeak atzera egiten duelako bazkide egiterako orduan eta ondorioz dirua galtzen ari direlako. Bazkideen kopurua, duela sei urte 400ekoa izatetik gaur egungo 300etara jeistearren arrazoiak, kiroldegia-ren egoera eskasa eta itxi egin behar dutela jakitea izan daitezkeela diote.



Polikiroldegikoak eraberritze lanak noiz hasiko zain daude


Esan beharra dago baita ere, bazkide egiteko beherapenak eskainiko dituztela, hainbat hilabetetan zehar kiroldegia itxita egongo delako. Udaletxeak, era berean, bazkideek inguruko herrietako instalakuntzetan ohizko karnetarekin sartu ahal izatea lortu du. Honen aurrean, Kiroldegiko arduradunek azken ekintza honek laguntzea eta lanak amaitu ostean, egoera

hobetzea espero dute. Soraluzeko alkateak, gaiaren inguruan lanean gogor ari diren arren, zailtasunez betetako lanak izateak atzerapenak dakartzala dio. Berrikuntzak, 130 milioi pezetako aurrekontua dauka eta EHUKo irakasle den Francisco Javier Ibarrondo donostiarak egindako proiektuaren arabera eraman-gora dira aurrera.

Arianne Unamuno,  
Maria Azkona  
Eguzkine Aldazabal  
Egoitz Unamuno

## Udalak milioi bat pezeta

Udaletxeak "San José de las Lacas" izeneko Kubako hiri bati, milioi bat pezeta ematea erabaki zuen. Diruak, erdi-mailako ikasketak eskaintzen dituen ikastetxe bat berriztatzeko balioko du eta honela, bertan ikasten duten 12 eta



16 urte bitarteko neska-mutilen egoera hobetu ahal izango da. San José de las Lacas" Kubako irlaren erdi-

aldean kokatuta dago eta 60.000 biztanle dauka 117 kilometroko azaleran banatuak.

## Vidal frutadenda

Zure frutadenda



Etxaburueta 2  
Tfnoa 943 75 20 55  
20590 Soraluze

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza Jabe Elkartek Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

# 90 Milloi baino gehiagoko eraberritze proiektua Soraluze Herri Ikastexean




*Ikastetxeko zuzendaritza kezkatuta dago eraberritze lanak dirauten bitartea egin beharko dituzten aldaketak direla eta.*

Urtarrilean, Jose Sobrino Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arkitektoak eta Rikardo Olaran, lanak aurrera eramango dituen etxearen arkitektoak egin zuten ikustaldi bateratuan osatu zen Soraluze Herri Ikastetxean ezarriko den eraberritze-aurreproiektuaren zirriborroa. Hil horretan bertan, Ikastetxeko zuzendariak, gurasoen elkarteak eta alkateak

egindako bileran, aurreproiektuari egin beharreko aldaketak zein ziren erabaki eta proposatu zituzten. Proiektuak, 80-100 milloi bitarteko kostua aurrikusten du. Kostu hau, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ordainduko du bere osotasunean. Alkatearen ustetan, oso lan garrantzitsuak izango dira hauek eta

ikastxeari aspalditik behar zuen eraberritzea ekarriko diote. Ikastetxeko Zuzendari den Mertxe Ezenarrok ere, erabat beharrezkotzat jotzen ditu lan hauek eta ikastetxeak dituen gabezia asko konpontzeko balioko duen itxaropena dauka. Aldi berean, lanen iraupen luzea dela eta, horrek ikasturtean izan dezakeen eraginaren inguruko kezka azpimarratu du.

## ETAren atentatua gaitzesteko kontzentrazioak



Hilaren 26an, ETAk Ramón Díaz, itsas-komandantziako sukaldari zibila eta CC OOko partaide zena hil zuen kotxepean ipinitako lapa-bomba baten bitartez, Donostiako Loiola auzoan, autoa eta gorpua guztiz txikituta utziz. Izatez salamankarra baina azken 40 urteetan Donostian bizi izandako 51 urteko gizona, ezkondua zen eta bi seme-alaba zeuzkan. Bai familia eta bai bizilagunak oso minduta zeuden, auzoan hain ezaguna zen Ramón Díazaren hilketaren ondorioz. Hilketaren egunean bertan, Gesto por la Paz talde bakezaleak deituta, Plaza Barrixan kontzentrazioa egin zen arratsaldeko 8:00etan, atentatua gaitzesteko.

### Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 46  
Partikularra 943 74 03 69



## Laburrean

### 4 Lapurreta baino gehiago azken hilabetean

Udaltzaingoak jakinarazi digunez urte hasiera honetan 4-5 lapurreta izan dira herrian. Lapurretak autoetan izan dira eta Udaltzaingoaren ustez, denak pertsona berak egindakoak omen dira. Itxura denez, dagoeneko begiz jota daukate "lapurra" eta ondorengo asteetan harra-patzea espero dute.

### Soraluzeko dokumentu historikoak

#### Bergarako udal Artxibategian

Bergarako udal Artxibategian Soraluze 68 dokumentu historiko aurkitu dituzte. Agiri hauek hainbat gairi buruzkoak dira: auziak, ordenantzak, gai publikoak...eta 1539 eta 1830 urteen bitartean idatzi ziren. Gipuzkoako Artxibategi Orokorreko arduradunak adierazi duenez, 1902an notario artxibatzaileak udal artxibategietatik eskribauek idatzitako protokolo eta agiriak gordetzera behartu zituzten.

### Karakateko "errepikagailuan" artefaktu bat jarri zuten

Hilaren 4an, 25 litro gasolinaz betetako bidoi bat, kableak, tenporizatzaile bat eta hasiera-emaila batez osatua zegoen artefaktu bat desaktibatu zuen Ertzaintzak Karakaten, eguerdi aldera. Lehergailua, errepikagailuaren ondoan topatu zuten eta itxura denez, lehertzeko programatua zegoen arren, oraindik jakin ahal izan ez duten arrazoren batengatik ez zen lehertu. Joan zen urteko urtarrilaren 27an ere, errepikagailu honek zenbait eraso jasan zituen, norbaitzuk argindarraren harrien ondoan gomazko gurpil batzuk jarri, erregaia gainera isuri eta su eman ziotenean.

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g  
138 Postakutxa

tf: 943752150  
Faxa: 943752118

**SORALUZE**



ZER  
BERRI

## Laburrean

### Asfaltatze lanak Santa Anan

Gila Zubian eta Trenbidean



**K**ale hauetako asfaltatze lanak direla eta, herrirako sarrera itxita egon zen ibilgailu haundientzat. Horrez gain, Oleatik Estazioarako bideko argizatze lanak amaitutzat eman dira. Zein ederra gelditu zaigun trenbidea!!




Aurten Eliz aurreko  
frontoi zaharra  
estaliko du Udalak

**E**skolako haurrei eta inguruan ibiltzen den jendeari begira gehienbat, Udalak eliz-aurreko frontoi zaharra estaltzeko erabakia hartu zuen. Proiektuaren arabera, frontoiari ia 1.000 metroko azalera duen estalkia edo teilatua jarriko diote, era honetan, ikastolako neska-mutilek aterpean egoteko aukera izango dute eta beste hainbat ekitaldi egiteko modua ere izango da bertan. Proiektua egin ostean, Udalak lehiaketara atera du berau eta orain, eraikuntza-etxeren batek hartzen duenean, 6 hilabeteko epean lanak amaituko direla aurrikusten da. Lanak denera 30.000.000 pezeta inguruko kostua izango dute baina Eusko Jaurlaritzak kostu horren %50a (25 milloi) ordaintzea espero da.

### Zentzu aldaketarako errotonda Santa Anan



**S**anta Anako zubiaren ondoan, aspaldian ibilgailuek bertan bira emateko zituzten arazoak sahiestu nahian, rotonda bat egiten hasi dira. Horrela, egin behar izaten zituzten maniobrak ekiditu ahal izango dituzte.



## EH-k dioenez Soraluzen 324 etxebizitza behar dira

**G**aur egun, Soraluze-ko etxebizitzetatik (1810) 323 hutsik daude. Eskari hau betetzeko, hutsik dauden etxebizitzaren %50a berreskuratzea

proposatzen du EHK. Dagoeneko, 152 etxebizitza eraikitzeko proiektua egin dago: Sacian 50 pisu eta Santa Ana kalean beste 9. Oraindik ere badaude

zehaztu gabeko proiektu batzuk, hala nola, Atxurin 11-17, Errekalden 24 eta Amutxastegin 22 pisu eraikitze-koak.

## Kontuz! Arratoi pozoia inguruan!

**U**rtarrilaren 15ean, udaletxeko bando baten bitartez, jakinarazi zen arratoi-aurkako kanpaina bu-

rutu zela, eta horrenbestez, oso toxikoa den pozoidun poltsa batzuk jarri zituztela herriko zenbait tokitan. Ondo-

rioz, arreta handia izateko erregutzen da, ume, txakur eta beste animaliekin.



## Lau eguneko baraualdia Udaletxean Presoen eskubideen alde

**J**oan zen abenduaren 26tik 30era bitartean, 8 lagunek baraualdia egin zuten preso-aren eskubideen alde. Baraualdiaz gain beste zenbait ekimen ere izan ziren; enkar-telada, bideo ema-

naldia, txarla, enkar-telada, manifa eta amaitzeko Maretutenera martxa Euskal Presoak Euskal herrira lemapean.

Baraualdia egin zuten 4 egun horietan, presoek gutunak idaz-

ten ere jardun zuten. Baraualdi honen helburua, Euskal Presoen oinarritzko eskubideen zapalketa salatu eta lehenbailen Euskal Herriratu ditzetela eskatzea izan zen.

## Hiru pertsona zaurituta Eibar-Gasteiz autopistako lanetan

**U**rtarrilaren 26an, osteguna, goizeko hamarretan inguruan, istripu bat gertatu zen Irure auzoan. Nissan Patrol bat irauli eta bertan zihoazen bi gizon (hiru langile ziren guztira) irten ezinik gelditu ziren



Felix Morquecho

kotxearen barruan. Eibarko suhiltzaileen eta Gurutze Gorriko eta Osakidetzako partaideen laguntzaz atera zituzten aipatutako bi zaurituak, eta Mendaroko eritetxera eramana. Zorionez, ez zen zauritu larririk izan.





# Iosu Unanue

## "Mutil naturala naiz"

Hamar urteko gizontxo hau plaza berrixan topau dogu beste lagun batzuekin batera ikastolatik kanpo dittuen orduak disfrutatzen. Irribarre eder horren atzean, erantzun azkarreko mutiko Simpsonzale "kontserbadore" ez ohiko bat ezkututzen. Gaurko gazteria azkarraren eredu onenetako bat.

**N**egu gorrixan garelata ta jentia hotzak dago, honek ez dake hotzan arrastorik be eta gustora asko dabitz jolasian hara eta hona.

*-Zelakua da Iosu Unanue?*

Ba mutil naturala...normala

*-Zure gustoko bazkarixa ?*

Arroza, oilaskua eta txokolatezko natillak

*-Erroparik erosuena ?*

Txandala

*-Zaletasunak ?*


Pelotia edo futbola

*-Eguneko momenturik onena ?*

Ikastolatik kanpo danak dira momentu onak

*-Zer behar da zoriontsu izateko ?*

Diru asko eta nobixia



Iosu Unanue

**Eguneko momentu onena?**

**Ikastolatik kanpo danak dira momentu onak**

*-Errealala ala Athletica ?*

Errealala

*-Zenbagarren geratuko da errealala*

Bosgarrena atzetik hasitxa

*-Zure gelan zeinen poster erraldoi bat jarriko ziñuke?*

Neria

*-Mendira doianak ze eruan bihar dau motxilan ?*

Perretxikuak hartzeko bol-tzia, ura eta txorixo pixkat.

*-Gustoko marrazki bizidunak ?*

Simpson. (Igartzen da)

*-Ze falta jako Plaentxiari ?*

Futbol zelai berrixa

*-Zelan ikusten dozu zure*

**Zure gelan zeinen poster erraldoi bat jarriko ziñuke ?**

Neria

*burua hemendik hogeit urtera ?*

Futbolistia, ezkondata eta bi umekin (Ideia argiak)

*-Amets xebrereren bat ?*

Bai askotan amets egitten

dot lapurrak etxian sartzen dirala, harrapau egitten nabela eta furgoneta baten eruan...(Bueno bueno)

*-Txiste bat...*

Aitor Uriarteren laguntzaz... Juaten da mutiko bat ikastolara eta urteeran esaten dotsa aittak, ze ikasi dozu! idazten... ia ba ze jartzen dau hemen...ei ei ondiok ez dakit irakurtzen...

Gururu



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

**Hotzian eta beruan jotako tornilluak**

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**Mendata taberna**



**Berezitasunak:**

Txipiroiak, Barazki Menestra, Gixauak...

**Asteburuan plater konbinatuak**

**Enkarguak etxerako (bazkariak eta afariak)**

Kalebarren, 5

Tfnoa 943 75 13 87



# Behi eruak eurak ala geu

## Plaentxiako basarritarren eta harakinen eritziak

Horrenbeste gauza entzuten da. Honegatik dela besteagatik dela, hau egin behar dela, bestea egin behar dela. Nahasmen horretatik irten nahian herriko basarritar ganaduzale eta harakin batzuekin berba egin dugu gaiaz.

**B**aserritarren artean kezka handia badago ere, gogo honez erantzun zieten gure galderari, harakin gehienek berriz, kontu gehiagorekin eta gogo gutxiagorekin hartu gintuzten (ulertzeko). Dena dela, bi aldeek ere, ministro askok baino argiago azaldu digute gai honen inguruan duten eritzia (ez da zaila), bakoitza bere tokian jarrita, arazoa nondik datorren ulertzeko klabe batzuk erakutsi dizkigute, hortaz gainera, arazo honek eurei sortu dizkien kalteen berri ere eman digute.

### Basarritarrak

Baserrietan galdezka hasi ginen orduko (Osuma, Arritxa eta Obe) laster galdetu zigun aitona batek; *"da zuek ze propaganda eitteko zabiz, beste gauza bat?"*, lasai erantzun genion; *"guk zeuek esandakua bakarrik"*. Gaiaz galdetuta, hasiera hasieratik, denek ere antzekoa erantzun ziguten; *"Etxakixat ba nik ze esan be, gauza garbirik eztaok hor.. Gauza larregi esaten dabela. Horrek basarrikuakin jabixaz baina pentsu-fabriketatik hasten ez baittuk, hor jai daok"*. Guz-

tiak ere pentsua jotzen dute erruduntzat; *"akautako ganauakin dana iriña eitten juen eta, ze koño gero, harek txarra derrigor izen biajok"*. Gainera pentsua; *"oindala lau urte hori prohibiduta dauala esaten juen eta etxakixat ba nik, nun emoten jakuen"*.

### EAEn kontrol haundia

Basarritarren ustetan hemen kontrol haundia dago ganaduzaleekin; *"kontrola urtero eitten juek, aurten be laster marti aldera eingo juek seguramente. Belarrixetan etiketak ipintzen jotsezik eta behi, txal eta danak markauta dauaz"*. Urteroko kontroletatik kanpo; *"guri etxoskuek ezer abixau"*. Euskal Herrian behi eroen kasurik

izango den hala ez galdetuta; *"hemen be banakia bai, azaldukok, eta denpora asko barru igual"*. Asmatu zuen, dagoeneko Nafarroan lehen kasuak azaldu dira eta.

### Basarritarrak kezkatuta

Basarritarrak nahiko ezkorak dira etorkizunari begira; *"hau eliminatzia joiak. Len Europatik etorri dok hemen subensiñua, gastatzen juangoittuk harek. Oin amaittu dok, hori Europatik jeterrenori gastau dok"*.


Hala zioten bai; *"geratukok bat ganauakin, inguruetan bat, berak ba ganaua asko, baina hau basarrixetako kontuau, fuera, fuera, doiala !"*. Ganadua saltzerakoan ere arazoak ei daude; *"flakuari ze ein biajotsau, gizenik inok*

**"Horrek basarrikuakin jabixaz baina pentsu fabriketatik hasten ez baittuk, hor jai daok."**

**"Hori pentsu hori prohibiduta jauan hemen, oindala lau urtetik."**

**"Hola jarraitzen bajok, basarrixan etxaok zereginik."**

*etxok nahi ta, hau asmauko dabenikan eh..."*. Gaia oso serioa izan arren egia gordinak ere umoretsu; *"hola jarraitzen bajok, basarrixan etxaok zereginik, egixa esateko lan bat gitxiao"*.



Osuma, Arritxa eta Obe baserrietan izan ginen behi eruen inguruan berba egiten.



Behi eruak



*"Hor garbi dao ze personaje ipini daben ministro moduan, sasiletrau ilustrau bat"*

*"Emon deixela informaziño ona baina ez, ez dakit zelako irudixak"*

*"Hemen okela ona dao eta trankil jan leike, inungo bildurrik barik"*

*"Jentia badaka konfiantzia gurekin eta horrek urria balio dau"*

### Harakinak

Harakinak zentzuz

Harakinengana joan gineanean zenbaitzuk ez zuten gai honen inguruan berba egiteko gogo haundirik; "hortako dauaz beterinarixuak eta eurak esan biharko juek, ezta? Bestela be bajabik nahikua komentariño". Ez da harriztekoa, eurak dira hortatik bizi direnak eta Behi Eroen inguruan atera den zarata guzti honek eurei egiten die kalterik gehien. Beste batzuek prest zeuden euren eritzia emateko eta halaxe egin zuten.



Arritxa baserrian okelatarako ganaduak dituzte batez ere. Neska-mutikoak gustora asko erakutsi zizkiguten.



**Merkatuaren legeak eragin du; merke, merke, merke...**

Harakin batzuen ustetan, merkatuaren joera orokorren ondorio da arazo hau; "danok dirua errez irabaztia nahi, jentia ezer pagatzerik nahi ez eta horretxek ekarri jok hori. Dirua egin dok errege eta kitto!". Arazoa neurrigabeko produkzioan dagoela uste dute zenbaitek, esnebehiekin gertatzen dena adibidetzat jarritz; "egon diran kasu asko esne behixekin izan dittuk. Normala ez dana dok, behi batek 10 litro emon biharrian 45 litro emotia. Baina, jentia ez dau ordaintzerik nahi, beste batzuk dirua irabaztia nahi...".



Iñaki Iñarra harakinak, beste erremediorik ez eta umorez erantzun zituen gure galderak.

Arazoa haunditu egin dute baina jentia konfiantza du harakiñekin

Arazoaren aurrean estauak erabili duen joakera eskasa azpimarratu zuten denek; "garbi dao ze personaje ipini daben ministro moduan, sasiletrau ilustrau bat". Emandako informazioaren inguruan eritzi txarra dute; "egun guztian ganauak zela erretzen dittuen erakusten, ez dago eskubiderik hortarako. Gainera ez da oingo gauzia, informaziño emon bihar leukien, hasi zanian". Salmentetan jeitsi-

erarik sentitu duten galdetuta; "igarri beti, bai, bai, hemen alperriko konturik etxaok baina tira, jentia badaka konfiantzia gurekin eta horrek urria balio dau".

### Konponbidea aurkitu beharra

Harakinek arazoari lehenbailen konponbidea aurkitzea eskatzen dute. Eurek ere hartu dituzte euren neurriak; "gu oin auditorixa baten sartuta gauaz, hiru hilabetian edo emongo joskuezik papalak eta zertifikau ofizialak" beste batzuk "nik

labeleko ganaua hiltzen juat, labelizao dana eta analizauta dauaz pentsuek, txixa... danak". Bakoitzak bere neurriak hartzen ditu eta hiltegieta ere ba omen dihardute; "momentu hontan hi juate haiz mataderixara eta emoten jok anbulatorixua, dana beterinarixoz beteta, hemen kontrol haundixa jaok horretan". Baserritarren moduan EAE-an dagoen kontrola azpimarratzen dute; "hemen diru asko pagatzen da mataderixetan, beterinarixoz eta medikuak analisisak egin deitzen, estaduko beste toki gehixenetan baino askoz gehixao". Informazioa ematerako orduan egiten diren nahasketetan ikusten dute arazorik haundiena eta eskatzen dutena; "emon deixela ganorazko infomaziñoa eta ez jentia hainbeste larrittu. Garbittu deixela kontu hau behingoz, horixe nahi dogu". Kontsumitzaile eta bezerooi "trankil etorri eta euki konfiantzia gurekin, haragi ona saltzen dogu".

Egoitz Unamuno  
Gorka Salaberria

# Futbol Taldeak

## egoera paregabeen urte amaieran moduan

**U**rte hasierak ez du gauza haundirik aldatu futbol kontuei dagokienez. Erregionalak sailkapenaren erdian jarraitzen du. Jubenilak igoera faseko lehen postua mantentzen dute eta infantilek, euren joko onarekin, igoera faseko lehen postuetan burua sartzeko ahaleginetan jarraitzen dute.

### Kadeteen joku onaren arrazoiak

Kadeteen kontu hau ez da berria futbol jarraitzaileendako. Joan zen urtean ere igoera faseko txapelketa jokatu zuten eta. Emaizta on hauek ikusita, euren entrenatzailea den Alberto Rascónengana jo dugu, ia bere errezeta magikoa ematen digun:

Hona hemen azken partiduetako emaitzak:

#### Urtarrilaren 13-14 / 20-21

##### Erregionalak

Pedrusko 0 - Soraluze 4  
Ordizia 4 - Soraluze 3

##### Jubenilak

Baskonia 1 - Soraluze 2  
Soraluze 4 - Urki 0

##### Kadeteak

Soraluze 1 - Baskonia 0  
La Salle 4 - Soraluze 3



### Elkarrizketa



# Alberto Rascón

*“mutikuak euren artian lagun talde bat osatzia gustauko litzaidake”*

**P**il pilean: Zeintzuk dira denboraldi honetan daukazezen helburuan?

**Alberto:** Mutikuak futbolian ikastia gustauko litzaidake, mutikuak pertsona moduan egitia be bai eta euren artian lagun talde bat osatzia. Zehazki kirolari dagokixonez, lortu dogu denboraldi hasieran jarritako helburu bat betetzia, sailkapen fasia jokatzia eta beste ligia baino zailagua da hau, kategorixa haundiko ekipuak dare eta.

*P. p.: Talde moduan zela portatzen dira mutiak?*

**Alberto:** Ondo portatzen dira. Ez dot inungo arazorik izan eta pozik nago euren jokaeriakin. Egixa esan bihar badot, talde erdixa baino gehixago jua zan urtetik ezagutzen dot eta infantiletatik etorritakuak segittuan egokittu ziran taldera.

*P.p.: Zelako maila dauke mutikuak, igoera faserako esperantzarik badakazue?*

**Alberto:** Talde moduan onak dira. Hor dare lortu dittugun emaitzak eta igoera faserako badauzkat esperantzak, ze jua zan urtian be jolastu genduan sailkapen fase hau eta aurtan esperantza gehixago dauke mutikuak.

*Alberto Rascón*



## SAN ANDRES

*Iturgintza*

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak*

*Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

## ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak  
Tuerka rosakataileak  
Ranurataileak  
Makina bereziak

## ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62  
Telefonoa(943) 75 18 91  
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA  
(Gipuzkoa)



# Mendi taldiaren urte guztiko ekintzen egutegia

*Animatu eta emon izena.  
Horra, domeka goiza  
pasatzeko aukera pare-  
gabia !*

**U**rte hasieria dala eta, Soraluzeke mendi taldiak, urte osuan zihar egingo dituzten mendi irteeren egutegi bat prestatu dau. **Pil Pileanek** ale hone-tatik aurrera hilero egingo dau urreko jarraipen bat

informaziño dana eskeiniz. Betiko moduan, aurren be hilian bi irteera egingo dira Euskal Herriko txoko ezber-dinetara. Irteerak ohitturia dan moduan, domeketan egingo dira eta izena emoteko Kirol Bazkunan lokaletik pasatu biharko da.

*Pagoetara egindako azken irteeria*

Urtarrilian xxxxxxxxxxxx bidai bat eta bestia eskiatzera xxxxxxxxxxxx ra egin ziran. Otsailian egingo diranak berriz:

**Otsailaren 11n :**

Gantzaga (Aramaixo)- Ipurte-Asintze-Atxarte

**Otsailaren 25ian:**

Trintxerpe-Pasaia-Guadalupe. T-P txalupaz pasatuko da ibaia.

## Txurruka eta Jauregi Euskadiko Ligan

**U**rte berriarekin batera txapelketa berriak ere badatoz, Euskadiko Liga esaterako da horietako bat. Herriko pelotariak, urte amaiera indartsu baten ostean, Gizpuzkoa mailan 5. Postuan sailkatzea lortu dute eta postu horri esker Euskadiko Liga jokatzeke baimena eskuratu ere bai.

**Bi partidu jokatu dituzte** Txurruka eta Jauregi plaentxiar bikoteak bi partidu jokatu ditu dagoeneko. Lehengo partidua 22 eta 7 galdu zuten Añorgan eta bigarren partidua 22 eta 13ko emaitzarekin manderatu zuten Gipuzkoako bigarren gelditu zirenen aurka.

**Laister herrietako txapelketak** tsail ingurutik aurrera hasiko dira herri mailako txapelketa asko eta asko. Herriko pelotariei dagokienez jokatuko dituzten lehenengo txapelketak, Gazteizko Zaramaga auzoan jokatzen dena eta bestea Donostiako

Intxaurren auzoan ospatzen dutena izango dira. Zaramagan Txurrukak eta Jauregik hartuko dute parte bikote moduan eta Intxaurren, Jauregik Urretxuko Lasarekin batera eta Laskurainek Elgetako Uberarekin.

**Segi gogor mutilak !**

Egoitz Unamuno




*Ventanas*  
**Olarri**

- \* Aroztegia, PVCa, Aluminioa
- \* Terraza estaldurak, Balkoiak
- \* Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10  
20590 Soraluze 73 Posta Kutxatila



ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea  
9 4 3 7 5 2 5 6 7  
20590 Soraluze



# Blues, Jazz eta filarmonika hotsak Gaztelupetik



**H**il honetan kontzertu asko izan dira Gaztelupian, Jazz eta blues musika entzuteko aukera izan dugu eta egia esan suerte ederra dugu, ez da eta musika mota honekin gozatzeko aukera asko izaten inguruetan (ez behintzat beste musika mota batzuekin beste). Lehenengo kontzertua Tonky Blues Band laukote madrildarrak eman zuen. Bigarrena Jazz kontzertua izan zen. Iñaki Arnalek saxuarekin, Koldo Uriartek pianoarekin, Josu Izagirrek kontrabaxuarekin eta Asier Oleagak bateriarekin eritmo bizi eta motelekin, jendea Jazzaren atmosferara berezi horretan sartzea lortu zuten. Denbora geldittu edo konturatu gabe pasarazten duen kontzertu horitako bat izan zen. Naco Goñi eta Malcom Scarpak disko berriak etara dabe. Gaztelupian egin zebaien aurkezpenera jente asko bai zan eta betiko moduan giro bikaina sortu zeben. Gaztelupian Rock gogorra nagusi. Hamabostaldi kulturala amaittu zanetik bi talde izan dira Gazteluxian. Azkena, urtarrilaren 27xan, Las Brujas taldea.

## Herri ikastetxeko umien danborra San Sebastian egunian



**H**erri ikastetxeko neska mutikuek danborrada jo zuten urtarrilaren 20an San Sebastian eguna zala eta. Danborrada arratsaldeko laurak aldera hasi zen eta musika lagun zutela danborrak ederki astindu zituzten.

Aitor Madrid, Egoitz Unamuno




**Videomatic**  
Gabolatz, 3-behea  
Telefona: 943 75 24 87



# Iosu

*bitxidenda*

Zorionak eta urte berri on

Santa Ana kalea  
SORALUZE  
Tfnoa 943 75 12 77



# Mari Tere Errasti edadetuen pintura irakaslia

Orain dala bi urte hasi zan Soraluzetar hau jubilauetan pintura erakusten.

**H**alata be, inork gutxi izan dau eskola honen barri. Hori dala eta, Pil Pilean aldizkarixak elkarriketatxo bat egittia pentsatu dau, ekimen hau herrixan ezagutu dein.

*Pil pilean: Zela akordau jatzuen pintura eskolak emoten hastia ?*

**Mari Tere:** Hemen kartetan jokutzen ibiltzen ziran danak eta Jaime Aristik zerbait egin biharra zeguala erabaki zeban. Honi bizitasun piskat emon bihar jakola.

*Pp.: Zer pintura mota lantzen dozue ?*

**M.T.:** Orain dabizenak arkatx eta ikatzezko marrazkiekin hasi ziran, akuarela batzuk be egin zittuzten... Jentia ilusiñuarekin dabil eta aurrera begira, kuadro lana hobetu nahi dogu.

*Pp.: Noiz emoten dittuzue eskolak ?*

**M.T.:** Astian behin, martitzenetan arratsaldeko



Mari Tere Errasti Itxaropenako egoitzan.

lauretan. Klasiak ordubete-  
tekuak izaten dira baina gustora garela eta, denpora gehixago hartzen dogu.

*Pp.: Zenbat ikasle daukazu ?*

**M.T.:** Zazpi bakarrik eta danak emakumezkuak.

*Pp.: Zeinek ordaintzen dittu erabiltzen dittuzuen materixalak ?*

**M.T.:** Jubilatuetako juntiak.

*Pp.: Erakusketaren bat jartzeko asmorik badaukazue ?*

**M.T.:** Kuadruak ikustia nahi dabena etorri leike bertara be. Aurrerago, balitteke erakusketaren bat jartzia,

**Jentia ilusiñuarekin dabil, eta aurrera begira, kuadro lana hobetu nahi dogu.**

baina oraingoz ez.

*Pp.: Klase honek zer dira, jubilatuetako bakarrik ?*

**M.T.:** Berez bai. Baina urtero "Laguntzailiak" ordaintzen dabenak be apuntatu leizke. Jubilatua izan barik, bertako bazkide izatiarekin nahikua da.

Afari batekin emon jakon amaieria **Gaztetxeko**

Hamabostaldixari



**A** bendu amaierako rock kontzertuak egin eta gero, urtarrilaren 5ian emon jakon amaieria aurtengo hamabostaldi kulturalari. Hurbildu ziranen ustetan, izan dira hau baino hamabostaldi hobiak baina autengua ez da hain gaizki egon. Datorren urtian be hamabostaldi kulturala antolatzen jarraitzeko asmua azaldu dabe Gaztetxe-kuak, "datorren urtian kañeruagua egingo dogu".

Otsailaren 3an **San Blas Eguna,** ez ahaztu



**A**urten sapatuan suertatu da San Blas Eguna. Urteroko moduan San Blas opilak hartu eta elizara joateko ordua heldu da. Urte guztian katarrorik eta gaixotasunik ez izateko, San Blasa bedeinkatzea da ohitura eta halaxe egingo dute herritar askok eta askok. Aurten gainera, sapatua egokittu denez jua zan urtetan baino jende gehixago batzia espero da. Ondo pasau eta ondo segi urte guztian !



## Kontrargi sariak

Joan zen hilean, Soraluzeko Kontrargi Argazki Elkarteak antolaturiko ralli lhiaketaren sari banaketa bat egin zen. Lehenengo saria lotu zuena Mikel Cengotita izan zen, bigarrena Ignacio del Rio, eta hirugarrena Enrique Torres, herriko saria Mikel Balerok eskuratu zuen.

Enara Agirre, Egoitz Unamuno



**Kiru**  
**Muntaiak**

**Blas Elizburu Kortaberria**  
Sukaldek, enpotratuak  
eta  
tarima flotanteak

Errekaldia, 30  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

**FER.**

**S.A.**

**Industriak**

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfnoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



# Gobernu bartzordeak

## Urtarrilaren 8an egindako ohiko saioan:

Santa Ana 28an dagoen udal biltegi berrria txukuntzeko "Talleres Otaduy"ren aurrekontua onartzea, 197.600 pezetako zenbatekoz, gehi BEZ.

Euskera Batzorde proposamenez, 185.522 pezeta ematea *Pil- Pileani* Udaleku irikietako begiraleen Gizarte Segurantza gastuei aurre egiteko.

"Albañileria Jose Antonio S.L."ren eskariz Sagar Erreka 9-behean pasabidea uztea.

## Urtarrilearen 15an egindako ohiko saioan

Osasun eta Gizarte Ongizate Batzordearen proposamenez erabaki hauek hartu ziren:

**1.000.000 pezetako dirulagtxa** ematea Cubako San Jose de las Lojas herrirako.

Arratoinen aurkako aurtengo kanpainarako "Cominser-Comercial Aldazabal, S.L"ren aurrekontua onartzea, 338.395 pezetako zenbatekoz, BEZ barne

**Udaltzaingoarentzat arropak berriak** erosteko, 333.411 pezetako aurrekontua onartzea BEZ barne.

## Urtarrilearen 22an egindako ohiko saioan

Roke Akizu Aizpuri-k sinatutako instantzia, Soraluzeko Zuhaitz-Landaretza Autoktonoaren Interkonexio Sustatze eta Kontserbaziorako proiektuaren lehen fase gisa, udalerrri hontetako landa izaerako

ondasunen Katastro datuak eskuratu eta digitalizatu ahal izateko baimena eskatuz; eskatutakoa ontzat ematea erabakitzen delarik.

Landaretza Autoktonoaren Interkonexio Sustatze eta Kontserbaziorako aurreproiektua egitearen ordainsari bezala.

1.110.000 pezeta ordaintzea **Roke Akizu Aizpuri**-ri, Soraluzeko Zuhaitz-

## Plazentziako Mendigainak Ikutu Bez Plataforma

Karakatetik Irukurutzetara egitea nahi duten zentral eolikoaren kontrako sinadurak batuko ditu:

Otsailean zapatuero 12:00etatik 14:00etara Idigorasen izkinan egongo gara.

Mendigainak bizirik nahi ditugulako animatu eta etor zaitez

### Javier Alonso Celaya

Hortz klinika



Mediku estomatologoa  
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma  
Tfnoa 943 75 16 13



### Eginberri

Okindegia

SANTA ANA, 4

Telefonoa: 943 75 25 43


Soraluze





# Menisko hausturak

*Belauneko osagarri diren kartilago honek, sarri lesionatzen dira kirola egiten daben jentiarengan.*



*Meniskoaren egitura*

**S**eguraski danok entzungo genduan noiz edo noiz, "fulanitori meniskua apurtu jako ta operau egin bihar dabe".

Giza belaunak bi hazurren artian ez dira oso ondo akoplatzen eta hori dala eta, dauzkagu meniskuak. Honen funtziñua, bi hazurren arteko batze osuago bat emotia da, hau da, belaunak jasotzen dittuan indarrak ondo banatzia. Hola, belau bakoitzian 2 menisko dittugu bat barnealdian, O forma daukana eta beste bat kanpokaldian C forma daukana. Esan biharra dago kanpokaldekoa gehi-

**Giza belaunaren funtziñua bi hazurren arteko batze osuago bat emotia da**

xago mobitzen dala barnekaldekua baino. Belauna ondo elikatuta mantentzen laguntzen dabe.

Belauna luzatzen eta flezionatzen dogunian meniskuak aurreruntz eta atzeruntz mobitzen dira. Hola, belauna luzatutakuan meniskuak aurreruntz mobiduko dira eta flezionatzerakuan berriz atzeruntz. Honen hausdurak mugimentu fisiologikua jarraitzen daben indar haundi batek edo mugimentu ez ohiko batek eraginak izan leizke .

Holako lesio bat gertatzen danean, hausdura jasan daben pertsonak min haundixa sentitzen dau eta egitten dagona laga biharra eukitzen dau. Gero belauna haunditu egitten da eta honen ondorioz, belauna luzatzen daben kuadriceps muskuluak indarra galtzen dau. Honetaz gain, lesioa jasan daben pertsoniak

**Hautsia dagan edo ez jakitzeko radiografia zein resonantzia magnetikua eskatu leike ahusdurarik dagan ala ez ikusteko**

zein medikuak, belanian "kraaa-kraa" bat nabaritu leike. Batzuetan, hausdura haundixa bada belauna blokeatuta gelditu leike oinez ibiltzerakuan.

Hautsia dagan edo ez jakitzeko, medikuak proba batzuk egin ohi dittu eta radiografia zein resonantzia magnetikua eskatu leike ahusdurarik dagan ala ez ikusteko. Esan biharra dago orain urte batzuk menisko dana kentzen zala, baina gaur egun ahutsitako zatixa baino ez dabe kentzen. Lehenago belau dana zabaldu bihar izaten zebe operaziño hau burutzeko eta

**Operaziño ostian erreabilitazio programa bat jarraitu bihar izaten da, belauna bere puntuan jartzeko**

honek ondorio larrixak ekarri leikezen, baina gaur egun hau artroskopia bidez egitten da, hau da, lau zulo txiki egitten dira eta kamara bat eta beste pintza baten bittartez ahutsitako zatixa kentzen da. Normalian lesiñua jasan daben gaixua 2-3 egunen buruan etxian egoten da.

Operaziño honen ostian kuadriceps-ak eta belauneko muskulu danak indarra galdu dabela eta, erreabilitazio programa bat jarraitu bihar izaten da, belauna bere puntuan jartzeko.

Oier Oregi



# Ibilixan ibilixan bertso eskolia

## Santa Ageda koplak San Blas egunian eta gero bazkaltzera San Andresera



???????

**I** bilixanekuak Santa Ageda eskian urtengo dabe otsailan 3an, San Blas egunian. Berez, bezperia 4an bada be, egun horretan baserrietara juaten diranez, bertso eskolakuak Santa Ageda bezperian bezperan urtengo dabe. Danera 22 neska mutikok urtengo dabe, trikitixak lagunduta kalez kale eskian

eta koplak kantari. Goiza hola pasau eta bazkaltzera San Andreσκο soziedadera juango dira. Bertan "bertsolari txapelketatxo bat", bideo bat ikusi eta kantuak abestuko dittuzte. Ageda, Blas, Andres... santu artian dabil kontua. Hona hemen "Eguazten" taldiak egun horretarako prestatu dittuan koplak edar batzuk:

### Daniela Mestre

*Santa Ageda bezpera bihar  
gaur da bezperan bezpera,  
berandu baino goiz hobe data  
halaxe gatoz eskera.*

### Maidier Ruiz

*Santu hori da Euskal Herrixan  
guk asko maitte doguna  
ia ba zeu be, egin zinttezke  
haren lagunen laguna.*

### Goretti Goyogana

*Santa Ageda ohittura zarra  
izan da Euskal Herrixan  
denporarekin zahartuko da  
Plaentxiako herrixan.*

### Beñat Catalan

*Gure herrixan zahartu zan len  
hil eta galdu ere bai,  
baina berriro piztuko dogu  
urtez urtez egon lasai.*

### Mailen Bolinaga

*Dendari eta tabernarixok  
sobran dozue dirua,  
eta dirurik emon ezian  
bazkaltzeko generua.*

### Arantxa Arizaga

*Bai bazkaltzera goiaz gu gero  
San Andresera gainera,  
eta zeozer eruan bihar  
ko dogu hara gainera.*

### Danok batera

*Ondo bizi ta eskerrikasko  
dan danon partetik zuri,  
hurrengo urtian gatoz berriro  
ordurarte ondo segi.*

## Horoskopua

*Ygarten Ygartendotela*

**ARIES** martxoaren 21etik apirilaren 21era

Egitten daben hotzak in bufanda barrixa erosi biharko dozu, bestela, barrio be ibiliko zara lepoko minakin kejaka...

**Pil-eguna: 4**



**TAURUS** apirilaren 22tik maiatzaren 21era

Salda epel epela jateko afiziñua daukazunez, kontu apurtxo batekin ibili zaitte eta ministriak esandako moduan prestatu, txarrixan hazurrekin.

**Pil-eguna: 10**



**GEMINIS** maiatzaren 22tik ekainaren 21era

Errealeko forofua zaranez, jakizu bigarren mailara jaistiak be badakazela bere alde onak... Gauzia topatzia da!

**Pil-eguna: 21**



**CANCER** ekainaren 22tik uztailaren 22ra

Juergan ibiltzia asko gustatzen jatu baina examinetarako ikastia ez litzake bape geizki etorriko.

**Pil-eguna: 25**



**LEO** uztailaren 23tik abuztuaren 22ra

Leo maittia, **Pil Pileaneko** bazkide egittigaittik ez zaittu Gartzonek auziperatuko (hori uste dogu behintzat, baina nork jakin?) eta trankil ibili zaitte.

**Pil-eguna: 7**



**VIRGO** abuztuaren 23tik irailaren 22ra

Etxeko aszensora estropeata daguala? Erretziari lagatzeko aukera paregabekua dozu oin, ala ez zara konturatu ondiok ziharo erreta zagozela?


**Pil-eguna: 16**



**LIBRA** irailaren 23tik urriaren 22ra

Espilura begiratu eta altuagua ikusten dozula zeure burua? Hogei zentimetrotako plataformadun zapatak erantzi eta gero, behintzat, ez zaitteztz deprimidu!

**Pil-eguna: 5**



**ESKORPIO** urriaren 23tik azaroaren 22ra

Nobixia/nobixua noizian behin bakian lagatzen be ikasi bihar da, ze pixkatxo batek gustua egiten dau, baina askok asperu.

**Pil-eguna: 9**



**SAGITARIUS** azaroaren 23tik abenduaren 21era

Beti gasolinian preziuz kezatzen zabiz, baina ez al dotsazu ba beti 1000 pezeta botatzen kotxiari ganorabako horrek?

**Pil-eguna: 18**



**CAPRICORNUS** abenduaren 22tik urtar. 20ra

Benidorren egon zarala emoten dau, ordua da dutxa on bat hartu eta zikin hori kentzeko! Txarrena lagunak be ez zaittuela gero ezagutuko...


**Pil-eguna: 28**



**ACUARIUS** urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra

Bedarren ura hartzen hasi biharko zara triapak apurtxo bat libratzeko, azkenengo egunotan gitxitan juaten zara tronuan jartzera eta.


**Pil-eguna: 1**



**PISCIS** otsailaren 21etik martxoaren 20ra

Emendau mobila bestela daroiazun martxiakin azkenian zinian edo mezetan joko dotsu eta...

**Pil-eguna: 14**





# Hileko sukaldarixa



*Itziar*

Oraingo honetan Alaitz tabernara jo dogu. Ezozira bidian dagan taberna honetan, nahiz eta txikixa izan, sukaldari haundixa dauke eta bertan Itziar aurkitu dogu, 18 urtez sukaldari eta tabernari lanian diharduena. Berak kokotxen errezeta emon zoskun, probatu eta ia gustatzen jatzuen!!!!

On egin!!

Izaskun Gartzia  
Ugaitz Katalan

## Kokotxak

### Osagaixak:

Oliba olixua  
Berekatza  
Arrain saldia  
Txikittutako ogixa  
Kokotxak  
Gatza

### Zela egin:


Lurrezko kazuela batian oliba olixua ipini eta bertan lau berakatz ale prijitzen dira. Berekatzak eginda darenian etara eta olio berian lehendik garbixak eta lehorrak daren kokotxak ipintzen dira. Kokotxa honeri gatza, perrexila eta salda pixkat gehitzen jakue. Dana su gogorrian ipini eta kazuela ondo eragin bihar da. Lehendikan frijituari dogun oliba olixo gehixago botako dotsagu, poliki poliki kazuela eragitiari laga gabe. Hamar minututan eginda dare.



## Lonbide taberna

*Pintxo ezberdinak  
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9  
Tfnoa 943 75 14 07





# agenda

Otsailaren **3** an

**10:30etatik 13:00era**  
bittartian  
**Ibilixan Ibilixaneko** ikasliak  
ibiliko dira kalez kale koplakantari.

**13:00ian**  
San Andresera joango dira  
bazkaltzera eta jaitxo bat  
egingo dabe bertan.

Otsailaren **4** an

**8:30etan**  
Urtengo dabe Agirren aurretik,  
baserrietara kantuan eta egun  
guztian ibiliko dira koplakantari.

Otsailaren **11** an

Gantzaga (Aramaixo)-  
Ipurte-Asintze-Atxarte

Otsailaren **25** an

Trintxerpe-Pasaia-  
Guadalupe.  
T-P txalupaz pasatuko  
da ibaia.

Otsailaren **24 25 27**

## Inauteriak

Denok mozerrotzera!!!



Ondo pasa!!!!

## Dohaineko iragarkiak

Zeozerr saldu, erosi edo iragarri nahi badozu hemen daukazu aukeria.

Iragarkia duan jartzeko aukera paregabia

Deitu 943 75 13 04 telefonora

( Partikularren iragarkiak bakarrik )

Pisu bat alokatzen da  
Jakan

Eski denboraldirako.  
Telefonuak:  
943 75 30 38  
943 83 39 92 **gabez**

Geriatria eta Klinikak  
laguntzailia

Zaharrak eta gaixoak  
zainduko nittuzke  
609 77 01 33  
telefonora deitu

Idatz makina salgai  
estrenatzeko

Prezio paregabea!!!  
Telefona:  
943 75 17 30

Piano eta solfeo klase  
partikularrak emoten  
dira

Animatu eta deitu  
telefonuak:  
943 75 10 66  
600 89 02 43  
Mariagattik galdetu

CROLLS  
markako sekadora bat  
salgai

Ia berria. **15.000 pezeta**

609 77 01 33  
telefonora deitu.

## ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa  
Berogailuak  
Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea  
Tlfona: 943 75 12 41  
Sakeleko tlfona: 639 17 96 96

## Adi!!

**Pil-Pilean 1.850 aleko tirada**  
Iragarkia ipintzea nahi?  
Deitu 943 75 13 04ra



# *SAN ANDRESKO* Munuan arratsalde pasa



**A**rgazki honetan Jesus Ariznabarreta eta Claudio Unamuno irrifarretsu eta tente ikusi geinkez. Exerita berriz, Mari Tere Ariznabarreta Maria Pilar Ariznabarreta, Elena Agirregomezkorta, Maria Jesus Laskurain eta Mari Mertxe Balzola. Edarra kuadrilia 5 neska eta 2 mutil, zein baino zein elegantiago. Gaur be hala dabiz. Eginberri dan frontoiak argazkixan etarata dagoen tokixan izena hartu dau, Munua !

Gururu

## Lehiaketia



*Nun dago eta zela  
deitzen da itturri  
hau?*

*Erantzuna baldin badakizu deittu  
bildurrik barik gure telefonora,  
zure izen abizenak eta telefonoa  
emon eta zozketan sartuko zara.*

**943 75 13 04**

**Bi lagunendako afari  
mundial bat irabazi  
zeinke.**



# Zorionak!!!!

autobusak



**Kristina Morales**  
2.001 - 1 - 23  
**Zorionak!!!**  
Maittasun haundixakin Aitor eta etxekuen partez.

**Amaia Agirre**  
18 urte  
2.000 - 1 - 22  
**Zorionak!!**  
Nere bihotzeko larroxa ederrari!  
**Oskarren partetik**

**Ventura Mendizabal**  
2.001 - 1 - 6 80 urte  
Zorionak eta muxu bat  
**Zeure familia eta batez be loiben partetik**

**Loiola Madera**  
22 urte  
2.001 - 01 - 29  
**Zorionak!!**  
Loiola el melenas, el terror de las nenas.  
**Friends and family**

**Kristina Laskurain**  
2.001 - 2 - 14  
**Zorionak!!!**  
Zure Gaztelupeko eskinako lagunena partez.  
**Aupa Soriana!!!**

**David Rascon**  
27 urte  
2.001 - 01 - 31  
Zorionak eta urte askotarako Potxolo!!  
**Txurrukeneko familiariaren partez.**

**Soraluze-Donostia:**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:55, 8:45, 13:45, 14:45, 15:45, 19:45.  
Zapatu lan egunetan: 7:45, 8:45, 13:45, 14:45, 19:45.

Igande eta jai egunetan: 10:15, 19:45

**Donostia-Soraluze:**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:15, 8:15, 12:00, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.  
Zapatuan eta lan egunetan: 8:15, 12:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Domeka eta jai egunetan: 17:30, 20:45.

**Soraluze-Gasteiz:**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00, 9:00, 11:00, 15:00, 18:15, 19:00.  
Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 11:00, 15:00, 18:15, 19:00.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 15:00, 17:00, 18:15, 19:00, 21:00.

**Gasteiz-Soraluze:**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:30, 8:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 20:30.  
Zapatu lan egunetan: 7:30, 8:30, 12:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Domeka eta jai egunetan: 8:30, 9:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 20:30.

**Bergara-Soraluze (urbanuak):**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:10, 7:20, 8:20, 9:20, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20, 20:20.  
Zapatu lan egunetan: 8:20, 10:20, 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20

Domeka eta jai egunetan: 13:20, 15:20, 17:20, 19:20, 20:20.

**Soraluze-Bergara (urbanuak):**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00, 7:05, 7:45, 8:15, 9:00, 9:15, 10:15, 11:00, 11:15, 12:15, 12:45, 13:00, 13:15, 14:15, 15:15, 15:45, 16:15, 17:15, 18:15, 19:15, 20:15, 21:15, 21:30.

Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 9:15, 11:00, 11:15, 12:45, 13:15, 15:00, 15:15, 16:15, 17:15, 18:15, 19:00, 19:15, 20:15, 20:45, 21:15, 21:30.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 14:15, 15:00, 16:15, 17:00, 18:15, 19:00, 20:45, 21:00, 21:15, 21:30.

**Soraluze-Eibar (urbanuak):**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:30, 7:40, 8:40, 9:40, 9:50, 10:40, 11:40, 12:40, 13:40, 13:50, 14:40, 15:40, 16:40, 17:40, 17:50, 18:40, 19:40, 20:40, 21:50.

Zapatu lan egunetan: 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 16:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Domeka eta jai egunetan: 13:40, 15:40, 17:40, 19:40, 20:40.

**Eibar-Soraluze (urbanuak):**

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:50, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00.

Zapatu lan egunetan: 9:00, 11:00, 13:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30, 21:00.

Domeka eta jai egunetan: 14:00, 16:00, 18:00, 20:45, 21:00.

**Iruñea-Soraluze:**

Astelehenetik zapatu lan egunetan: 10:30, 18:00. Domeka eta jai egunetan: 17:00, 20:30. Soraluze-Iruñea:

**Soraluzetik-Iruñea:**

Astelehenetik zapatu lan egunetan: 7:45, 13:45. Domeka eta jai egunetan: 9:15, 18:15.

■ Ekainerarte balio dau ordutegi honek

**jaixotakuak**

**Carlota De Carlo Vergel**  
2000 - 12 - 13  
**Iruna Gamazo Diaz**  
2.001 - 1 - 2  
**Julen Gallastegi Rascón**  
2.001 - 1 - 7

**hildakuak**

**Antonia Rubio Lopez**  
**Enrique Placencia Zabala**  
**Ester Ruiz**



**telefonoak**

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udaltzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kiroldegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kirol Elkarte	943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutua	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apaiz Etxea	943 751370
Ertzaintza -Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112

## Oharra

Jubilatu eta 18 urtetik beherako pertsonak bazkide izatia nahi badabe 1.500 pezeta ordaindu biharko dituzte bakarrik. Animatu eta egin zaittie bazkide !



**iletargixan gorabeherak**

Ilberri		Ilbete
Otsaila 23		Otsaila 8
Ilgora		Ilbehera
Otsaila 1		Otsaila 15

**mezen ordutegixa**

**Astegunetan:**  
Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

**Sapatutan:**  
Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

**Domeka eta jai egunetan:**  
Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),  
11:00tan (umiendako euskeraz) eta  
12:30tan (elebiduna)



# Pil Bilean

## Plazentziaren aurpegi ezberdinak erakusten dizkizu

### Bitoriano Gandiaga



Ez gara ohartzen  
pagoak baino gehiago  
nola ari garen gutxitzen,  
nolatan ahulduz goazen,  
enbor elbarri geratzen,  
fossil, momia, edozer  
gauza hotzepel bihurtzen.

Ez dugu eskatzen aiderik  
Bizi ahal gaitzen,  
Lurrik, non egon, non iraun  
Non segi bizitzen.

Ez dugu salatzen  
asfixiz gaitzen  
gaituen trantze hau:  
Herriak ez bait du  
Herriko etxe bat  
non herrikoz jardun,  
non ikus, non entzun,  
non ikas euskaldun  
bizitzen, hiltzen nun  
euskaldun.

Narkosis aidean  
bakean,  
pagoen patxada  
sorrean  
herriko ohianean  
ondoak zerraldo  
datozen artean,  
ez dugu ohartzen  
ez dugu salatzen  
ez dugu jakin nahi  
zer dugun gainean.

Geu izateko bildurrez  
geua erantziz,  
Bildur saltzailez.  
Bildurtiz gezur  
eta lapur  
Bihur-  
tzen goaz Euskal herria  
Euskal Herriren iruzur.

B. Gandiaga (1.991)  
Hiru gizon bakarka "Korupekoak" atal



**uek**



**mikel urdangarin**  
espilue



**BIDE ERTZEAN**  
grisa



**URREZTIETA KONEXION**



**MORAU**



**ARIMA BELTZA**



**fundiziyue**



**ENE BADA**



**gaztelupeko hotsak**

94 p.k.20590 SORALUZE / Tel.: 943 75 30 16 / Faxa: 943 75 01 39 / [www.hotsak.com](http://www.hotsak.com) / e-posta: [gaztelupeko@hotsak.com](mailto:gaztelupeko@hotsak.com)

**Disko guzti hauek Gaztelupe tabernan dituzu salgai**

Mintzatzeko. Telebista ikusteko. Bertsolariek esaten dutena ulertzeko. Euska  
Herri osoan barrera ibili ahal izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakurtzeko  
Adiskide berriak topatzeko. Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko. Pasadizo  
barregarriak kontatzeko. Lana aurkitzeko aukera gehiago egiteko  
Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko aldizkaria irakurtzeko egiteko  
Euskal Herria egiteko. Euskaraz bizitzeko. Mintzatzeko. Telebista ikusteko  
Bertsolariek esaten dutena ulertzeko. Euskal Herri osoan barrera ibili aha  
izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakurtzeko. Adiskide berriak topatzeko  
Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko. Pasadizo b  
Lana aurkitzeko aukera gehiago egiteko  
Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko aldizkaria irakurtzeko  
Euskal Herria egiteko. Euskaraz bizitzeko. Mintzatzeko. Telebista ikusteko  
Bertsolariek esaten dutena ulertzeko. Euskal Herri osoan barrera ibili aha

**Aukera paregabea**



**Maila guztiak**  
**EGA, Alfabetatze, Mintza praktikak**  
**Hizkuntza eskakizunak**

**Matrikula epea Otsailaren 9ra arte**  
**Hasta el 9 de febrero**

**UDALAREN LAGUNTZAZ: Guraso, langabetu, ikasle eta lagileentzat.**

**Informazio eta matrikula: "Maixuen Etxea"**  
**Frontoi kalea 5 - 2**  
**Tfnoa: 943 75 14 34**

**æek**  
**izena eman**